



HEZKUNTZA BEREZIKO HEZITZAILEAK

MARTXOKO BATZORDE PAREKIDEAK

Abendutik martxora bitarte ez da Batzorde Parekiderik burutu, gai zerrenda pilatuz. Hau dela eta martxoan Batzorde Parekidea bi egunetan burutu da. Bestalde, **steilas**tik beti eskatu dugu azken bi ikasturtetan geldirik egon den Negoziazio Mahaia berreskuratzea. Azkenik lortu dugu Negoziazio Mahaia burutzeko data jartzea, apirilean izango da. Espero dugu Lan-hitzarmena puntuz puntu tratatzeko eta lantzeko aukera izatea.

Gai guztiak tratatzeko bi Batzorde Parekide burutu behar izan dira. Trataturako gai nagusienak hauek izan dira:

1.-ERRELEBO KONTRATUAK. AKORDIOA

Errelebistak deitzeko 2014ko martxoak 31an hartutako akordioa bertan behera uztea erabaki zen. Arrazoia INSS jartzen ari den oztopoak izan dira, antzintasun handiko errelebistak atzera botatzen ari zen, "fomento de empleo" ez dela betetzen ulertzen dutelako.

Akordioa puskatuta, hemendik aurrera errelebo kontratua betetzeko zerrendetan libre dagoen lehenari deituko zaio.

2.-LANPOSTU ZERRENDAREN EGUNERATZEA

Zaharrak berri! Haziendako txosten bat falta dela adierazi ziguten.

LZ-a eguneratu gabe izateak leku-aldatze lehiaketan lanpostu errealak ez agertzera darama. Gure kezka adierazi genien, ondorioak langileak pairatzen dituztelako. Ikusi beharko da ia gai diren leku-aldatze lehiaketa baina lehen ateratzeko.

3.-ZEINU HIZKUNTZAKO INTERPRETEEN AKORDIOA

Urtarrila eta otsailean bi mahai tekniko egin ziren ZHI-en lan-baldintzen inguruan. Mahai tekniko hauetatik ateratako akordioa ontzat eman eta sinatu zen. ZHI-en lan eremua, funtzioak, egutegi eta ordutegia, formazioa... arautuz. Kolektibo honek 2006tik, hezitzaile kategoriara pasatu zenetik, lan baldintzak zehaztu gabe izan ditu.

Akordioa beraz oso positiboa izan da.

4.-FIBROSI KISTIKOA

Fibrosi kistikoaren elkarrekin Osasun departamentuarekin sinatu duen akordio baten berri eman zuten. Akordio honen bitartez, fibrosi kistikoa duten ikasleek, elkarteko fisioterapeuta batek emandako arnas fisioterapia saioak eskolan jaso ahal izango dituzte, beti ere medikuak eskola orduetan jasotzea beharrezkoak dituztela preskribitzen duenean.

Akordio hau behar bezala betetzen dela jarraitzea eskatu genion administrazioari, egoera arrarorik eman ez dadin, eta kanpoko fisioterapeuta baten beharra justifikatua dagoenean soilik eman dadin.

www.steilas.eu

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu

5.-FISIOEN DERRIGORREZKO KOLEGIAZIOA

Fisioterapeuten kolegioaren derrigortasunaren inguruan administrazioak erantzun argirik eman gabe jarraitzen du. Elkargoak Hezkuntzan lanean ari diren fisioterapeuten zerrenda eskatu omen die eta Hezkuntzak bere zerbitzu juridikoei kontsulta egin ondoren fisioterapeuten zerrenda hau bidali behar diola erabaki du eta hala egingo dutela jakinarazi ziguten. Administrazioari eskatu genion beraien departamentukoak diren fisioterapeuta langileei erabaki honen berri ematea, eta hala egingo zutela erantzun zuten.

3.-AKORDIO DESBERDINAK:

Eguneroko funtzionamendua hobetuko dituzten akordioak proposatu ditugu eta Parekidetan lantzen ari gara. **Hauetako batzuk, aurrez adostuta bazeuden ere, berriz berretsi dira:**

***Hezkuntza Laguntzako finkoen ekaineko esleipena:**

2012ko ekaineko Parekidean adostutakoa berretsi zen, hau da, Berritzegune batean, ekainean, Hezkuntza Laguntzako finkoen esleipenean langile kopurua baina plaza gutxiago dauden kasuetan, finkoen artetik antzinasun gutxiena duen langilea aterako da berritzegune horretatik.

***Alaba-semeak zaintzeko aldi baterako etetea:**

2015eko ekaineko Parekidean adostutakoa berresten da, hau da ordezkapen baterako deitzen gaituztenean, 3 urte baino gutxiagoko alaba-semeak zaintzeko aldi baterako etetea zuzenean eska daiteke, eta ordezkapen horrek sortuko lizkigukeen puntuak barematuko dizkigute.

***Penalizaziorik gabeko deialdiak:**

Penalizaziorik gabe uko egin daitezkeen ordezkapenak hauek dira: zentro Terapeutikoetako plazak, errelebo kontratuak eta 50 kilometro baino gehiagotara dauden jardun erdiko kontratuak.

Beste proposamen batzuk forma hartua dute baina oraindik aztertzen ari gara eta lehenbailehen sinatzea da gure helburua aplikatzen hasi daitezen:

***Langile ordezkoen borondatezko eszedentzia:**

steilastik proposamena bota genuen, langile ordezkoentzat, kontratuean daudenean, hau moztu eta irakasleen zerrendetara joateko aukera izan dezaten hezitzaile zerrendetan mantenduz.

Hau aplikatzeko mahai gainean dagoen baldintza hau da: irakasle zerrendetara joateko, ordezkoak indarrean duen hezitzaile kontratua mozten badu, ikasturte horretan berriro ere hezitzaile moduan ezingo diote deitu. Horrela finkoen "excedencia por incompatibilidad"-en antzeko aukerak emanaz.

Akordio hau oraindik ez dago guztiz itxia, baina bide onetik doa.

***Jardunaldi erdiko kontratuen bazkaltzeko denboraren konputua:**

Lan-hitzarmeneko 17.2.d artikulua, bazkaltzeko denborari erreferentzia egiten diona, irizpide berdinekin jardun partzialeko Hezkuntza Laguntzako Espezialistei aplikatzea adostu da. Oraindik akordioa sinatu gabe dago, baina administrazioak ez du arazorik jarri eta aurrera joango dela dirudi.



www.steilas.eus

Araba ☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eus

Bizkaia ☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eus

Gipuzkoa ☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eus

Nafarroa ☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eus